

“Jakin-mina izan nuen kimika ikasteko akuilua”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Oier Lakuntza Irigoien

Kimikari Teoriko eta Konputazionala



Oier Lakuntza Irigoien

Iruñea, 1985ean

- 6 urte zituela, **Wolfram sindromea** diagnostikatu zioten, neuroendekapenezko gaixotasun arraro bat.
- Kimikako lizentziatura bukatuta, ordurako itsu eta gor, **Kimika Teoriko eta Konputazionalako doktoretza** egin zuen EHU.
- Bi urteko egonaldia osatu zuen Kimikako Ikerketetarako Institutu Katalanean (ICIQ), eta gaur egun **CIC Energiguneko ikertzailea** da.

Oier Lakuntza Irigoienek ikusmena galdua eta entzumena urrituta dauzka. Horrek ez dio galarazi bertsolaria eta CIC Energigune zentroko ikertzailea izatea. Ez du bide erraza izan, hala ere.

Adibidez, Batxilergoan zientziak ikastea erabaki zuenean, gogoratu du ingurukoek letretatik jotzea gomendatu ziotela, errazagoa izango zitzaiolakoan: “Kazetaritza edo Euskal Filologia edo horrelako zerbait egin nezakeela esaten zidaten. Baina betidanik izan nuen zientziak ikasteko gogoia, bereziki Kimika. Eta banekien ezen, ez banintzen saiatzen, betirako geratuko zitzaidala arantza”.

Aitortu duenez, Kimikako gai berri bat hasten zuten aldiro, jakin-mina pizten zitzaion. Jakiteko gogo hori izan zuen Kimika ikasteko akuilua, eta ez zitzaion damutu. Laborategiko praktikak ezin zituen egin, eta apunteak hartzeko ere zailtasunak zituen.

Zailtasunak zailtasun, emaitza oso onak lortu zituen. Hala, karrera amaitu zuenean, bere buruari galdetu zion hor utzi behar ote zuen ibilbide zientifikoa, eta kimikaren munduan jarraitzea erabaki zuen. Bazezkieen laborategi batean ezinezkoa izango zitzaiola, baina Euskal Herriko Unibertsitatean Kimika Teoriko eta Konputazionalako Doktoretza zegoela jakin zuen, eta hango buruarekin, Jesus Ugalde Uribe-Etxebarriarekin, harremanetan jarri zen.

“Harrera ona egin zidaten, eta doktoretza bertan egitea erabaki nuen”, azaldu du Lakuntzak. Meta-noaren aktibazioaren gainean egin zuen tesia, eta doktoretza-ondorengoa egitera, berriz, Tarragonara joan zen, Ikerketa Kimikoko Institutu Katalanera. Bere helburua, baina, Euskal Herrira itzultzea zen, eta, CIC Energigunen aukera zegola jakin zuenean, hari heldu zion.



Elkarrizketa osoa
webgunean

Hutsuneak eta gabeziak

Aurrera egitea lortu badu ere, ez da bide zelaia izan; hainbat oztopori egin behar izan dio aurre. “Kimika teorikoan aritu naiz, eta, alde horretatik, errazagoa izan zait egokitzea. Edonola ere, ikasle izatetik iker-tzaile-mentalitatea lortzera pasatzea asko kostatu zitzaidan. Era berean, ingurukoek aldetik sarritan gauzak erraztu nahi izateko gehiegizko joera sumatu nuen. Doktoretza bukatu eta gero, zein bide hartuko nuen beldur moduko bat ere sumatu izan nuen”, onartu du Lakuntzak.

Haren esanean, zientziak benetan integratzailea izan behar badu, gauza horiek aldatu egin beharko lirateke, eta uste du komenigarria izango litzatekeela ikerketa-zentroetan eta lantokietan baliabide eta laguntza gehiago egotea behar bereziak dituztenei erantzuteko. “Hutsune eta gabezia handia dago. EHUko Kimika Konputazionalako taldean sartu nintzenez, ni nintzen hara sartzen zen lehen itsua, eta ez zegoen ezer aurreikusita egokitzeko eta besteekin batera lan egiteko”.

Orain CIC Energigunen dabil, energia metatzeko materialetan ikertzen. Orain arte egin duen lanetik, beraz, oso lan desberdina da, eta erronka handia izan da. Aurrera begira, berriz, nahiago du egunean egun joan: “Ikerketa-munduan egonkortasuna lortzea zaila da, eta, ditudan mugekin, are zailagoa izango zait. Oraingoan, CIC Energigunen beste urtebeterako kontratua daukat, eta gero, ikusiko dugu. Iruindarra izanik, han zerbait topatuko banu, gustura hartuko nuke”. Iruñera itzultzekotan, ikerketa-mundua uztea ere ez du baztertzen, baina, bitartean, ikertzen jarraituko du, jakin-mina ase nahian. ●